



Usurbilgo Udala



2015EKO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Garcia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain (5. puntutik aurrera)
Josune Urkola Larrarte
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Mirari Azurmendi Sorazuk

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko urriaren 27an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

* 2015/09/10EKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2015eko irailaren 10eko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala



* 2015/09/29KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2015eko irailaren 29ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO IRAILAREN 21ETIK URRIAREN 16RA (2015/0866 – 2015/0938)

Alkatetzak 2015eko irailaren 21etik urriaren 16ra bitartean (2015/0866– 2015/0938) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

Josune Urkolak adierazi du irailaren 29ko plenoan uztailaren 18tik irailaren 18ra bitarteko dekretuen berri eman zela, dekretuen zenbakia ordea 234tik 865era jartzen zuela eta 234 zenbakia duen dekretua martxokoa zela zehaztu du.

Idazkariak erantzun dio akats bat izango dela, eta gaineratu du onartu diren dekretu guztien berri eman zaiela emailaz zinegotziei.

3.- 2015/0899 DEKREUAREN BERRI EMATEA: HAINBAT BATZORDE INFORMAZTZAILETAKO LEHENDAKARITZAK ESKUORDETZEA.

Batzarkideei 2015/0899 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

“2015/0899 DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE, Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jaurlararen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkion eskuduntzak erabiliz, eta Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Legearen 125 artikulua eta Udal Erregelamendu Organikoaren 13. artikulua diotenaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

2015eko irailaren 7an izandako Ogasun Batzorde Informatzailean, batzarkideek gehiengo onartu zutela alkateak eginiko proposamena eta Alaitz Aizpurua Labaka proposatu zutela batzordeko lehendakari izateko.

IKUSIRIK

2015eko irailaren 3an izandako Hezkuntza eta Garapena Batzorde Informatzailean, batzarkideek gehiengo onartu zutela alkateak eginiko proposamena eta Alaitz Aizpurua Labaka proposatu zutela batzordeko lehendakari izateko.



Usurbilgo Udala



IKUSIRIK

2015eko irailaren 17an izandako Parekidetasuna eta Aniztasuna Batzorde Informatzailean, batzarkideek gehiengoz onartu zutela alkateak eginiko proposamena eta Josune Estella Arranz proposatu zutela batzordeko lehendakari izateko.

IKUSIRIK

2015eko irailaren 17an izandako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde Informatzailean, batzarkideek gehiengoz onartu zutela alkateak eginiko proposamena eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta proposatu zutela batzordeko lehendakari izateko.

IKUSIRIK

2015eko irailaren 28an izandako Kirola Batzorde Informatzailean, batzarkideek gehiengoz onartu zutela alkateak eginiko proposamena eta Iñaki Ugarte Agirre proposatu zutela batzordeko lehendakari izateko.

XEDATZEN DUT

LEHENA: Ogasun Batzorde Informatzaileko lehendakaritza Alaitz Aizpurua Labaka zinegotziarengan eskuordetzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

BIGARRENA: Hezkuntza eta Garapena Batzorde Informatzaileko lehendakaritza Alaitz Aizpurua Labaka zinegotziarengan eskuordetzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

HIRUGARRENA: Parekidetasuna eta Aniztasuna Batzorde Informatzaileko lehendakaritza Josune Estella Arranz zinegotziarengan eskuordetzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

LAUGARRENA: Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde Informatzaileko lehendakaritza Jone Urdanpilleta Urdanpilleta zinegotziarengan eskuordetzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

BOSGARRENA: Kirola Batzorde Informatzaileko lehendakaritza Iñaki Ugarte Agirre zinegotziarengan eskuordetzea, indarreko arautegiak ematen dizkion eskumen guztiekin.

SEIGARRENA: Xedapen honen berri Udalbatzari ematea egiten den lehenengo osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan honen laburpena argitara ematea.

ZAZPIGARRENA: Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatuko da eta bere dataren hurrengo egunetik eragina izango du.”



Usurbilgo Udala



4.- 2016 URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO GARRAIORAKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

2007. urtetik "Buruntzaldea Erregimen Bereziko Gunea" osatuta dagoela jakinarazi du eta gune horretan batzorde bat dagoela eratuta non hainbat erabaki hartzen diren, besteak beste, eskualdeko tarifak berdinak izatea.

Eskualde honetan bi taxi elkarte daudela esan du, G.Taxi eta Agitax. Hauek urtero txosten ekonomikoak egiten dituzte eta horien baitan hurrengo urterako taxi tarifak proposatzen dituztela adierazi du.

Biak ala biak 2016rako ez dutela igoerarik proposatzen azaldu du.

Jarraian bi tarifen zehaztasunak eman ditu.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

"Esp. Zenbakia: HZ.06/2015-0414

Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxien legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, *(Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).*

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspenera egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.



Usurbilgo Udala



Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

Ikusirik

2014ko abenduaren 18an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2015 urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxi bidariei zuzendutako hiri garraio zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2015 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2015ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1*			Tarifa 2**		
Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua	Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

*Lanegunetan 07:00etatik 22:00arte

Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai **larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan **2016 urtean USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA aurkeztu dute Gipuzkoako taxien bi elkarteek.**

2016 urterako Taxien elkarteetatik aurkeztu diren proposamenak hauek dira:

1.- G.TAXI GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEARTEAREN TARIFAK 2016 URTERAKO

G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkartearen izenean Gregorio Alias Jerico jaunak hau dio:

- 2016eko ekitaldirako, ordezkutzen dituen profesionalak, beraien jarduera profesionaletarako indarreko tarifen gehikuntzarik ez eskatzea erabaki dutela.

- 2016ean zehar 2015eko tarifak mantendu nahian, aurretik aipatutako taxi-profesionalen helburuak honako hauek direla:



Usurbilgo Udala



. Azken urteetan taxi zerbitzu eskaeraren uzkurtzea areagotu eta sektorearen errentagarritasuna larriki kaltetu duena ongi ulertzea.

. Taxi tarifak eta kontsumoaren gainerako prezioak lerrokatzea, azken hamabi hilabeteetan zehar, urteroko aldaketako balioak zero zenbakiaren hurbil egon baitira.

2.- AGITAX TAXIAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAREN TARIFAK 2016 URTERAKO

AGITAX Taxiaren Gipuzkoako Elkartearen ordezkari izan Emilio Fernandez Hidalgo jaunak azterketa ekonomikoa aurkeztu du eta datorren urteko tarifei dagokienez hau dio:

- Erabili behar den barruko elkartutako tarifa aurreko urtekoaren berdina da, %0 igoera egin ondoren (aipatutako azterketa ekonomikoan oinarrituta), tarifaren taula 2016 urterako 2015eko taulako prezio eta baldintza berdinekin mantentzen da.

2015eko urriaren 2an Buruntzaldeako eskualdea osatzen duten Udaletako ordezkariak bien tarifa horiek aztertzeko bildu dira Usurbilen: Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko ordezkariak bertaratu ziren bilkura horretara bokal bezala ihardunez. Bokal bezala ihardunez bertaratu ziren baita ere Urnieta, Lasarte-Oria eta Usurbilgo taxi titularrak. Bilkuran ziren, baita ere, etorle bezala G.Taxi Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkaria, eta AGITAX Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkaria .

Bi proposamenak entzun eta aztertu ondoren AHO BATEZ erabaki zuten 2016 urterako tarifak kongelatzea, beraz, aurreko urteko prezioak mantentzea. Honako tarifa eta baldintzak onartu dira 2016 urterako:

2016ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1*			Tarifa 2**		
Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua	Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

*Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte

**Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.



Usurbilgo Udala



Kontutan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalarari dagokio tarifak onartzea.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak, 2015eko urriaren 8an egindako bileran, aho batez, Jone Urdampilleta, Joxe Mari Iribar, Carlos Perez eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo herri barruko garraiorako 2016. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak onartzea.

BIGARREN: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneren erabakia bidaltzea behin betiko onespenera eman dezan.

HIRUGARREN: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gazteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunari bidaltzea 2015eko azaroak 13a baino lehen."

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- 2016KO ZERGA ORDENANTZAK BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu. Ogasun batzordean aztertu zela gaia esan du, non Ordenantza Fiskaleko zerga, tasa eta prezio publikoak banan banan erreparatu zituzten.

Diktamenean jasotzen direnak aldaketa izan dutenak direla eta hauei buruzko azalpenak emango dituela zehaztu du.

2016ko proposamena lantzeko orduan kontutan izan dutela dio abuztutik abuzturako KPI aldaketa eta Gipuzkoaren kasuan -0,2 negatiboa eta EAEn kasuan -0,1 negati-



Usurbilgo Udala



boa izan direla zehaztu du. Hau ikusita, beraien proposamena zergak bere horretan uztea dela azaldu du. Bestalde, azpimarratu du azken urteetan Usurbilen progresibitatean oinarritutako irizpideak lantzen eta barneratzen joan direla Ordenantza Fiskaletan.

Jarraian, irizpenean jasotzen diren moduan proposatzen diren aldaketak zeintzuk diren azaldu ditu banan banan.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Ogasun Batzordeak, 2015eko urriaren 20ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta (EH Bildu), eta Fermin Orue-Echevarriaren (PSE) aldeko botoekin, eta Josune Urkolaren (EAJ) abstentzioarekin egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA.- 2016ko Zerga-Ordenantzak behin-behingo onartzea, ondoko aldaketekin:

4.-ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

11. artikulua.

a) %95ko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan energia aurrezteko lortzen bada. Beren helburu bakarra hura izanik eta legeak jada ezartzen dituen betebeharrak eta gutxienekoak gainditzen badituzte eta haratago badoaz. Eraikuntza, instalazio eta obrek honako helburu hauetakoren batekin bat etorri beharko dute:

_Eraikinen ingurutzailerearen energia eragingarritasuna lortzeko egiten diren lanak. Fatxadak eta estalkiak isolatzea (kanpoko arotz lanak barne).

_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, Eragingortasun Energetikoari dagokionean A mailako ziurtagiria lortzen duten eraikinei: Hobaria behin obra amaitu eta eragingortasun energetikoaren A maila ziurtatzen denean exekutatu da.

_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, *Passivhaus* edota *Minergie* estandarrak betetzea lortzen duten eskuhartzeetan. Hobaria behin obra amaitu eta eraikitakoak hala betetzen duela ziurtatzen den unean exekutatu da.

_Energetikoki eragingarriak diren Instalazioetan egindako lanak (berokuntza, hozketa, etxeko ur beroa, elektrizitatea).

_Energia berriztagarriak edo alternatiboak instalatzea (eguzki energia edo fotoboltaikoa, eolikoa, biomasa, e.a.)



Usurbilgo Udala



b) %90ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun baldintzak errazten dituztenean (igogailuak, maldak, plataformak, etab.). Beren helburu bakarra hura izanik eta legeak jada ezartzen dituen betebeharrak eta gutxienekoak gainditzen badituzte eta haratago badoaz.

c) %90ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 1go edo 2gn kategorian, agertzen direnean. Kasu hauetan hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen.

d) %50ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta aurreko puntuan aipatutako Ondare Katalogatuaren 1go eta 2gn kategorian ez daudenean. Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 3gn kategorian, agertzen direnean hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza hau Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen. Gainontzeko kasuetan, hau da, Ondare Katalogatuaren zerrendan agertzen ez direnean, izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

e) % 15eko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, subjektu pasiboak aurrez eskaera bideratu beharko dutelarik.

8.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL IHARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

A. Etxez etxeko zerbitzua prestatzeagatik

“1. Indarrean dagoen arautegia” izan beharrean:

“2006ko abuztuaren 24an onartutako araudia indarrean jarri baino lehen zerbitzua jasotzen ari ziren erabiltzaileak”.

“2. Arautegi berria” izan beharrean:

“2006ko abuztuaren 24ko data duen arautegi berria onartu ezkerko zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileak”.

“Mendekotasuna duten erabiltzaileei eta autonomoak direnei tarifa berberak aplikatuko zaizkie. 2015. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten duen orduko prezioa aplikatuko da, lanegunetan zein jaiegunetan.” izan beharrean:



Usurbilgo Udala



“Mendekotasuna duten erabiltzaileei eta autonomoak direnei tarifa berberak aplikatuko zaizkie. Urtero, Gipuzkoako Foru Aldundiak zehazten duen orduko prezioa aplikatuko da, lanegunetan zein jaiegunetan”.

G.- Udal etxebizitzaren erabilpena

- .- Hileko erabilpen normala 357,90
- .- Erabilpen soziala, hileko 181,65
- .- Etxe konpartitua, hileko 78,46

Ezabatu.

Sortu:

G. Udal materiala alokairua

Usurbilgo Udaleko mahai eta aulkiak kanpoko talde zein entitateek erabiltzeko eskatzen dituztenean, alokairuaren eta birjartzearen prezioak.

	Alokairua €/erabilerako	Birjartzea €
Aulkiak	0,3	10
Mahaiak	3	50

10. ZUZENBIDE PUBLIKOKO UDAL ZERGEN ETA BESTE DIRU-SARREREN KUDEAKETAREN ETA BILKETAREN GAINEKO ORDENANTZA NAGUSIA.

27. artikulua: Egutegi fiskala.

Egutegi fiskala Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udal honetako Iragarkien Oholean kaleratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikulua aipatzen duen kobrantzarako iragarki betekizuna bete ahal izateko.

2016 URTEKO EGUTEGI FISKALA

ZERGA KONTZEPTUA

- Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...):
- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiruhilekoa:

ORDAIN EPEA

- Urtarrilaren 2tik otsailak 1era.
- Urtarrilaren 2tik otsailak 1era.



Usurbilgo Udala



- | | |
|--|--------------------------------|
| - Ura ,estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: | Otsailak 1etik martxoak 15era. |
| - Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: | Martxoak 1etik apirilak 15era. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiruhilekoa: | Apirilak 1etik 30era. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiruhilekoa: | Maiatzak 1etik ekainak 15ra. |
| - Ondasun higiezinaren gaineko zerga: | Maiatzak 16tik uztailak 1era. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiruhilekoa: | Uztailak 1etik abuztuak 1era |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruhilekoa: | Abuztuak 1etik irailak 15era. |
| - Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): | Irailak 1etik 30era . |
| - Ekonomi jarduera gaineko zerga: | Urriak 1etik azaroak 10era. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruhilekoa: | Urriak 1etik 31ra. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruhilekoa: | Azaroak 1etik abenduak 15era. |
| - Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutzazain automatikoak...): | Azaroaren 1etik 30era. |

- Helbideratutako agiriak borondatezko epearen azken egunean kargatuko dira zergapekoak emandako kontu korrontean

a) *Diru sarrera egiteko epea:* Egutegi fiskal honetan agertzen dena

b) *Diru sarrera egiteko modua:* Helbideratutako agiriak zuzenean kargatuko dira bezeroak esandako Banku edo Aurrezki kutzaren kontuan. Helbideratzeke daudenei dagokienez, zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria helbide fiskalera bertara bidaliko zaie ohiko postaz.

c) *Ordainketarako lekuak:* Ondoko erakunde laguntzaileen edozein bulegotan egin daiteke: Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Sabadell, Rural Kutxa edo udal Zergabilketa sailean.

d) *Ordainketa epea amaitu bada zorrak sartu gabe, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboko errekaruak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira. Zerga hauen ezarpen eta eraginkortasunari buruz emandako egintzen aurka, berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzi errekurtsioaren aurretik, borondatez ordaintzeko epean edo hori amaitu ondorengo egunetik aurrera kontatuko den hilabeteko epean.*

5. Sekzioa. Atzeratzeak eta zatikapenak



Usurbilgo Udala



104. Artikulua. Eskaera.

- 1.- Udalak eskatutako zergen subjektu pasiboek beren zorren ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskatu ahal izango dute.
- 2.- Ordainketak atzeratzeko edo zatikatzeko eskaerak zerga bilketa departamenduan egingo dira, eta hari dagokio ordaintzeko obligazioa duenaren ekonomia-finantza egoera baloratzea zor horiek ordaintzeko ahalbideei begira.
- 3.- Eskaeraren edukia.: Gerorapen eskaerak honako datu hauek jasoko ditu nahitaez:

-Eskatzailearen eta, hala bada, ordezkariaren izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

-Zein den geroratu nahi den zorra, gutxienez zenbatekoa eta kontzeptua adieraziko dira.

-Gerorapena eskatzeko arrazoiak. Gerorapena eskatzen den aldirako dauden diru aurre ikuspenak ere sartuko dira.

-Eskatzen den gerorapenaren epeak eta gainerako baldintzak.

-Zein den eskaintzen den bermea, berau aurkeztu behar ez den kasuetarako ezarritakoaren kaltetan gabe.

-Zeintzuk diren bermea aurkeztetik salbuespen duten zirkunstantziak Zergen Foru Arau Orokorrak 79.2 ataleko a) letran eta erregelamendu honek 49. artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz.

-Ordaindu gabe dauden zor guztiak lortu nahi den gerorapenean metatzeko eskatzea

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak ondokoak izango dira:

Kreditu entitate batek edo elkarrekiko bermedun sozietate batek hartutako konpromiso espresu eta atzerazina, abal solidarioa formalizatzeko. Hau ez da beharrezkoa izango, ordea, berme-salbuespena dagoenean edo onartzeko eskatzen den bermea kreditu entitate baten edo elkarrekiko bermedun sozietate baten abala ez denean.

Azken kasu horretan, abal hori lortzeko ezintasunari buruzko informazioa erantsi beharko da egindako gestioak behar bezala azalduz eta dokumentatuz, eta berme gisa eskaintzen diren ondasunak zerrendatuz. Balorazio bat eskatu ahal izango zaio eskatzaileari honek eskainitako ondasunen inguruan, eta balorazio hau administrazioak izendatuko dituen enpresa edo profesional aditu eta independentetek egin ahal izango dute.

Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, baldin badaude.

Zorra bide exekutiboan egonez gero, gutxienez zorraren % 20 ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuko da.

Bermetik erabat edo partzialki salbuestea eskatzen bada, ondoko hau aurkeztuko da:

Eskatzailearen aitortzea, ondasunik ez duela edo berme gisa eskainitakoak ez beste dituela adieraziz.



Usurbilgo Udala



Azken hiru urteetako balantzea eta emaitzen kontua eta, baldin badago, auditoretza-txostena.

Egindako azken Errenta Aitorpenaren kopia

4.- Eskaerak beharreko baldintzak betetzen ez baditu edo eskatutako dokumentazioa jaso ezean, gerorapena izapidetzen duen organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari baldintzak bete eta beharreko dokumentuak aurkez ditzan. Hala egin ezean, bere eskaeran atzera egiten duela ulertuko da, eskaria besterik gabe artxibatu egingo delarik.

Era berean, Zerga bilketa Zerbitzuak interesgarri deritzon dokumentazio edo informazioa eskatu ahal izango dio interesatuari ebazpena hobeto oinarritzeko.

5.- Hona hemen atzerapena emateko irizpide orokorrak:

- a) 150eurotik 1.500 eurotara bitarteko zorrak 6 hilabetez atzeratu edo zatituko ahal izango dira gehienez, beti ere gutxienerako kuota 150 €koa izango delarik. Berandutze interesak kobratuko dira.
- b) Zorra 1.500 eurotik gorakoa bada, edo zatitzeko epea 24 hilabete baino gehiagokoa ezingo da izan inolako kasuan, beti ere gutxienerako kuota 300 €koa izango delarik.

Zerga kontzeptuak ez direnengatik Udal Ogasunari zor zaizkion kopuruak atzeratu edo zatikatzeko eskaerei ere aplikatuko zaizkie irizpide horiek.

6.- Ez zaie zerga-zorren atzerapen edo zatikapenik onartuko eskaera egiteko unean honako zirkunstantzia hauetakoren batean dauden subjektu pasiboak:

- a) Egin beharreko adierazpenak aurkeztu ez dituztenei edo zerga edukiari buruzko informazioa jasotzeko Usurbilgo Udalak eginiko eskaeraren bat bete ez dutenei.
- b) Aldez aurretik atzeratu eta zatikatu diren zerga-zorren atzerapen edo zatikapenik ez da onartuko.
- c) Atzeratu eta zatikatu diren zerga-zorrak izan eta ordainketak egin ez direnean, ezingo da zor berrien atzerapen edo zatikapenik eskatu betebeharra gauzatu ez den egunetik urtebeteko epean.

104.bis artikulua: Bermetik salbuestea.

1. Zilegi izango da bermea eratzeko obligaziotik erabat edo zati batean salbuestea ondoko kasuetan:

- a) Eskatzailea lurralde mailako herri administrazioa edo bere organismo autonomoetako bat denean, beti.
- b) Zatikatzeko eskatzen diren zorrak 3.000 eurotik gorakoak ez direnean.
- c) Ordainketa zatikatzeko eskaerak hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 12.000 euroko kopurua gainditzen ez badu eta zatikatzeko epea urtebetekoa baino handiagoa ez bada.
- d) Ordainketa zatikatzeko eskaerak hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 150.000 euroko kopurua gainditzen ez badu, zatikatzeko epea bi urtetik gorakoa ez bada, eta, zatikapena onartu aurretik, eskatzaileak, gutxienez, zatikatu behar den zorraren %20 ordaintzen badu.



Usurbilgo Udala



e) Ordainketa zatikatzeko eskaerak hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoak 150.000 euroko kopurua gainditzen bada, zatikatzeko epea bi urtetik gorakoa ez bada, eta, zatikapena onartu aurretik, eskatzaileak -gutxienez 30.000 euro ordaintzen baditu zatikatu beharreko zorra 150.000 eurotik gorakoa izan ez dadin.

2. Aurreko puntuko b), c), d) eta e) letretan aipatutako zenbatekoak zordun bakoitzarengatik eta bere zor guztiengatik aplikatuko dira.

105. Artikulua. Interesen zenbaketa.

1. Gerorapena onartzen bada, zor geroratuaren gaineko berandutza interesak kalkulatu behar dira, borondatezko epearen mugaegunetik gerorapen epearen mugaegunera. Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko errenergua ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian. Sortutako interesak geroratutako zorrarekin batera ordaindu beharko dira.

2. Zorra zatikatzea onartzen bada, zatikatutako zor bakoitzarengatik kalkulatu dira berandutza interesak

Zatikapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko errenergua ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian.

Borondatezko epea amaitzen denetik emandako epea amaitu arte sortutako interesak konputatuko dira zorraren zati bakoitzeko. Zati bakoitzarengatik sortzen diren interesak zati horrekin batera ordainduko dira dagokion epean.

106. Artikulua. Ez ordaintzearen ondorioak.

1. Zorra geroratzen denean, epearen mugaeguna iritsi bada ordainketa egin gabe, honelaxe jokatu behar da:

a) Gerorapena borondatezko epean eskatu bada, epe exekutiboa hasiko da, eta geroratutako zorra eta sortutako interesak exijituko dira, epe exekutiboko errenergua eta guzti. Ordainketa osoa egiten ez bada martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorak, 61.5 artikuluan jasotako epean, premiamenduzko prozedura hasiko da ordaintzeko dagoen zorra kobratze aldera. Hala badagokio, lehendabizi bermea gauzatu daiteke.

b) Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, lehendik hasitako premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da besterik gabe. Hala badagokio, lehendabizi bermea gauzatu daiteke.

2. Zatikapenak borondatezko epealdian eskatu badira eta epemuga behin iritsita bi epe badaude ordaindu gabe, ordaintzeko dauden gainerako zatiak epemugaz kanpokotzat joko dira. Horrek epealdi exekutiboa hastea eta ordaindu gabeko zorrarengatik premiamenduzko probidentzia besterik gabe ematea ekarriko du.

Zatikapenak epealdi exekutiboan eskatu badira eta epemuga behin iritsita bi epe badaude ordaindu gabe, premiamenduzko bidetik joko da berehala ordaindu gabe duen zor guztiarengatik, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorak, 61.5 artikuluan zorrak epealdi exekutiboan ordaintzeko ezarri duen epea ez da baliagarri izango.

3.- Zatikaturiko ordainketetan, epe bakoitzeko berme partzialak eta independenteak osatu diren kasuetan, honela jokatu da:

1. Zatikapena borondatezko epean eskatu denean, frakzio bat ez bada ordaintzen, soilik frakzio hori eta bere berandutze-interesak eskatuko dira



Usurbilgo Udala



premiamendu bidez, dagokion premiamendu-errekargua barne, eta dagokion bermea gauzatuko da ondoren.

- b) Zatikapena epe exekutiboan eskatu bada, ordaindu ez den frakzioari dagokion bermea gauzatuko da, eta sorturiko berandutze-interesak kobratuko dira.

Bi kasu horietan, zatikapena onartu zen unean zehaztutako baldintzetan geratuko da zatikaturiko gainerakoa.

- 4.- Udalak Erakunde Abal-emaileari bermaturiko zorra ordaintzeko eskatzen badio, honek errekerimendua jaso ondoko hamabost egunetan ordaindu beharko du kopuru hori.

107. Artikulua. Bermeak.

- 1.- Borondatezko epeko kuota eta atzerapen interesak, sortzen diren kasuetan, gehi baturaren ehuneko 25a bildu beharko du garantiak, borondatezko epean.

- 2.- Honako berme hauek onartuko dira:

a) Erakunde gordailu-zainen abal solidarioa, hasierako kopurua eta berandutze-interesak kitatuko dituena. Emaniko epeak amaitu eta gutxienez 6 hilabete geroago emango da abal hori eta behar bezala kontu hartua egongo da.

b) Udalak onarturiko obra ziurtagiriak. Obra horien ordainketa gerarazi egingo da bermaturiko zorra kitatzen ez den bitartean.

- 3.- Kontzesio-erabakia jakinarazi ondoko bi hilabeteko epean jarriko da bermea. Epe hori igaro ondoren ez bada bermea formalizatu, zorra premiamendu bidez eskatuko da berehala, dagozkion interesak eta premiamendu-errekargua barne, ordaintzeko arauzko epea amaitu bada beti ere. Atzerapena epe exekutiboan eskatu bada, premiamendu-jardunbideak aurrera egingo du.

- 4.- Atzeratzeko eskaera borondatezko epean aurkezten bada, zorra bermatzen duen erakunde kaudimendunaren konpromisorik gabe, eta borondatezko ordainketa epea amaitzean erabakia hartu gabe dagoenean, Udalak zordunari egin beharreko ordainketak kautelaz atxikitzeko agindu ahal izango du Diruzaintzak. Atzeratutako zorra 1.500 eurotatik gorakoa bada, dagozkion Erregistro Publikoetan zordunaren ondasunen bahitura prebentiboa idazteko agindua eman ahal izango da.

- 5.- Derrigorrezkoa izanik banku-abala aurkeztu ez duten atzerapen eta zatikapen eskaeretan, honako berezitasun hauek aplikatuko dira salbuespen gisa:

a) Atzerapen edo zatikapen eskaerarekin batera, bere alde Abala formalizatzeko bi Kreditu Erakundeek ezezkoa aurkeztuko du eskaera egileak. Ezezkoa ematen den dokumentu horietan subjektu pasiboa abala ukatzen duen kreditu erakundeko ohiko bezeroa dela adieraziko da, gutxienez 6 hilabeteko antzintasunez, eta adierazi egingo dira, era berean, abala ez emateko arrazoi zehatzak, eta borondatezko epean zerga ordaintzeko epea amaitzean subjektu pasiboak finantza erakundearen dituen aurrezki-kontu guztien edo bestelako kontuen batez besteko saldoak.

b) Baldintzarik gabeko baimena aurkeztu beharko da Usurbilgo Udalak, Ogasun Zerbitzuen bidez, subjektu pasiboaren banku-kontu guztien, edozein dela ere haien mota edo modalitatea, saldoak eta mugimenduak ezagun ditzan, eskatutako zatikapen edo atzerapenak irauten duen bitartean.



Usurbilgo Udala



6.- Jardunbide exekutiboan, Diruzaintzaren iritziz balio nahikoa duten ondasunen bahitura prebentiboaren oharra egin denean erregistro publikoan, zorra bermatutzat hartuko da eta ez da beste bermerik aurkeztu beharko.

108. Artikulua. Atzerapenak eta zatikapenak onartzeko organo eskudunak.

- 1.- Alkatetzari dagokio atzerapenak eta zatikapenak eman eta ukatzea, baina alkatetzak beste organo batzuen esku utzi ahal izango du ahalmen hori.
- 2.- Zatikapena edo atzerapena onartzen duten erabaketan, honako hau adieraziko da ezinbestean:

2a) Borondatezko epean

- a) Zatikatu edo atzeratzen den zerga-zorraren edo zerga-zorren kopuru zehatza.
- b) Atzeratu edo zatikaturiko guztizko kopurua (kopuru nagusia gehi interesak).
- c) Emaniko epe bakoitzaren kopurua eta mugaeguna.
- d) Eskaera egileak aurkeztu beharreko berme mota edo, hala behar badu, obligazio horren dispentsa.

2b) Exekutibako epean

- a) Zatikatu edo atzeratzen den zerga-zorraren edo zerga-zorren kopuru zehatza.
- b) Atzeratu edo zatikaturiko guztizko kopurua (kopuru nagusia gehi interesak).
- c) Emaniko epe bakoitzaren kopurua eta mugaeguna.
- d) Eskaera egileak aurkeztu beharreko berme mota edo, hala behar badu, obligazio horren dispentsa.
- e) Berandutze interesen kitapena

3.- Erabakia ezezkoa bada, eta atzerapena edo zatikapena borondatezko epean eskatu bada, ordaintzeko borondatezko epea hilabetekoa izango da haien jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

4.- Ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera gaitzesten duen Erabakiaren aurka Alkatetzaren aurrean Berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.”



Usurbilgo Udala



Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- 2015EKO IRAILAREN 29KO OHIKO BILKURAN EAJ-PNV UDAL TALDEAK EGINDAKO GALDERARI ERANTZUNA EMATEA.

Alkateak gogorarazi du irailaren 29ko plenoan EAJ-PNV udal taldeak eskaera bat egin zuela beraien egoitzan egindako pintada batzuen inguruan.

Erantzuna irakurri aurretik alkateak adierazi du Josune Urkolarekin harremanetan egon direla eta erantzun honen berri baduela.

Jarraian, alkateak EH Bildu udal taldearen erantzuna irakurri du.

Andoni Atxegak adierazi du erantzun horretan, batetik, bakea eta bizikidetzaren aldeko konpromisoa hartzen dutela eta pintadak ez dituztela ontzat ematen, baina aldi berean badirudiela dio egileen motibazioak ondoegi ezagutzen dituela udal gobernuak eta ekintza justifikatua dela dirudi. Bestetik, argi dagoela dio ekintza politikoa izan dela motibazio politikoengatik eginga eta ez dagoela dudarik alderdi politiko baten lokalean izan dela. Beraz, “zer du ekintza guzti horrek pribatutik?” galdetu du. Guzti hau kontutan hartuta, beraien eskaera berresten dutela adierazi du.

Alkateak erantzun dio ez dakitela zerk zehazki bultzatu dituen momentu honetan pintada horiek egitera, pintada horietan oso baieztapen orokorrak egiten zirela zehaztu du. Baina badakitela dio pintada horiek ze testuinguru politikotan gertatu diren eta beraien adierazpenaren zentzua kokatzeko egin dutela zehaztu du. Beraz, lehenengo parrafoak ez dagozkiela horrenbeste dio egileen motibazio edo zergatiei, baizik eta testuinguru politiko batean kokatzeari.

Bigarren puntuari dagokionez, Andoni Atxegak berak aitortu duela dio motibazio politiko bat badagoela, testuinguru politiko batean egindakoak direla; baina gaineratu du egia dela ere pintada horiek edo beste hainbat pintada egin daitezkeela hainbat lokal pribatu edo publikotan eta ez duela uste udal honek bere gain hartu behar duenik lokal pribatuetan egiten diren pintadak kentzea.

Aurretik Josune Urkolari adierazi zion bezala, alkateak adierazi du gai honen inguruan hitz egiteko ez duela batere erreparorik. Bakea eta bizikidetzaren gaian hitz egiteko gai izan beharko luketela dio eta EH Bilduk eskua luzatuta daukala horretarako. Bere ustez azken urte hauetan Euskal Herrian zerbait nabarmendu bada izan da hainbat herritan



Usurbilgo Udala



egin diren ahaleginak, oso sentsibilitate desberdineko jendea elkarrekin lanean arituz, eta Usurbilen kasuan baldintza egokiak betetzen dituela horretarako adierazi du.

2015eko irailaren 29ko plenoan EAJ-PNVk egin zuen galderari honako erantzuna eman dio idatziz EH Bildu udal taldeak:

“Irailaren 23an pintada batzuk agertu ziren Usurbilen, eta tartean EAJ-PNVren batzoki-ko paretak ere margotu egin zituzten.

Pintada horiek Baigorri lau euskal herritar atxilotu ondorenean gertatu ziren. Espainia-ko Barne-Ministeritzaren esanetan, ETArekin zerikusia zuten atxilotuek, eta, dirudie-nez, armen entrega bideratzeko eta gatazkaren ondorioez elkarrizketatzeko ahalegine-tan ziharduten.

Gertakari hauen aurrean, Usurbilgo EHBilduren udal-taldeak garbi adierazi nahi du ba-kearen eta bizikidetzaren alde daukan konpromisoa. 2011Ko Aieteko Adierazpenean jaso zen bide-orriarekin bat egiten du EHBilduk, eta geroztik “Bakerako Euskal Bidea” dokumentuan are eta gehiago zehaztu du bakerako eta bizikidetzarako jarrera.

Zoritxarrez, Espainiako eta Frantziako estatuek etengabe oztopatzen dute bizikidetzar-ako bidea. Ez dute bake iraunkorrik nahi Euskal Herrian. Bakeari atzea eman, eta bor-txaz ari dira militante politikoak atxilotzen, kartzeletako bizi-baldintzak gogortzen, dis-pertsioaren dramari eusten eta areagotzen, kondenak luzatzen modu arbitrarioan eta bidegabean, tribunal berezietako epaiketa politikoak egiten, ezker abertzaleko egoitzak konfiskatzen, eta abar. Errepresio giro honetan, ez du laguntzen zenbait ordezkari poli-tikoren ahotan bide polizialaren aldeko adierazpenak entzuteak.

Horrek guztiak min handia egiten du, eta izugarri zailtzen du bakerantz abiatutako bi-dea.

Hala ere, EHBilduren ordezkariok berresten dugu gure konpromisoa, eta EAJ-PNVren udal-taldeak egindako eskaerari, honela erantzuten diogu:

1. Herrian egindako pintadak ez ditugu ontzat hartzen, iruditzen zaigulako kalte egiten diola bakeari eta bizikidetzari. Zubiak eraikiz, elkarrizketan arituz, diagnostikoak eta au-rerra begirako ekinbideak adostuz egin behar dugu aurrera, eta ez elkarri eraso eginez.
2. Bake, bizikidetzeta eta normalizazio politikoaren aldeko jarrera aktiboa eta konprome-titua adierazten dugu, eta saiatuko gara Usurbilgo eragile eta herritarrekin batera dina-mika egokiak bultzatzen.
3. Pintadak kentzeari dagokionez, iruditzen zaigu ez dela udalaren zeregina lokal pri-batuetao pintadak garbitzea.

Usurbilgo EHBilduren udal-taldea

Usurbilen, 2015eko urriaren 20an.”



Usurbilgo Udala



7.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.